



BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 219. alea - 2017ko ekaina



Kooperazio lanetan Saharan



G

JOXEAN GALDONA AIZPURUA

HORTZ-SENDAGILEA
Odontologia orokorra,
kirurgiak eta inplanteak

Hondartza Kalea, 20 - behea
Tel.: 943 192 819
20820 Deba

RAIKETAK S.L.

SAGARMIÑA

Hondartza, 3-4 behea - Apartado, 31
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel./Fax: 943 192 249
Mugikorrek: 629 639 685 / 629 641 940
sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com

haizea
estetika

Tlf. 943 029 607
Iturkale 22. 1 eskubia
sarrera Zesterokua plazatik



BU
SO UHTE

BURU - ZURI
Taberna

- Otarfekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Luntxak
- Gauetan tragoak

Lersundi Kalea, 23
Tel.: 943 191 034
20820 DEBA

kutxabank
hemen
eta orain **k**



Hazirik
ZURE EKODENDA

San Roke Kalea 6, DEBA
telf.: 943 02 99 63
e-mail: hazitik@gmail.com

Calbeton

JATETXEA

Agustín
Larrañaga Elorza

Denboraldiko platera
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea
Tlfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)

L.A.

LARRAMENDI
ANAIK, S.L.

- LIXATUAK
- BERNIZATUAK
- PARKET
- PARKET FLOTANTEAK

Mobila: 670411786
Mobila: 607453357
e-mail: larranaiak@gmail.com

ARTZABAL AUZOA
20820 DEBA (Gipuzkoa)



UDA IKASTAROA
IRAUPENA: 80 ORDU

Ekainaren 26tik uztailaren 21era
(3 ordu egunean)

Irailaren 4tik 15era
(2 ordu egunean)

PREZIOA: 123€

**Ikasle eta langabetuentzako
prezioa: 77€**

Bekatzeko-sistema

DEBABA UDAL EUSKALTEGIA
Ifar kalea, 12 - Tel.: 943 192 236
DEBA

erabili
euskerara
utiliza el euskerara

LANEAN
IKASKETETAN
SARE SOZIALETAN
EROSKETETAN
KIROLA EGITEAN
FAMILIAN
LAGUN ARTEAN
JAIETAN
AISIALDIAN

CURSO
16/17
IKASTURTEA
UDAL
EUSKALTEGIAK
euskara klaseak • clases de euskera



AURKIBIDEA

07

KULTURA

Praileaitz I kobazuloari buruzko liburu monografikoa kaleratu berri dute

08

ERREPORTAJEA

“Gernika asko dago munduan. Gu ere errefuxiatuak izan ginen”

10

KRONIKA

Debako gazteak kooperazio lanetan aritu dira Saharan; hona hemen kronika

12

ALBISTEAK

Memoria historikoa berreskuratzeko proiektua abiatuko du Debako Udalak

14

B. GAZTEA

Irungo Txingudi ikastetxearekin elkartrukea, inkesta, denbora-pasak...

Aurtengo Euskal Jaia iragartzeko kartel lehiaketa martxan da

Urtero legez, lehiaketa abiatu du Zuhatza Euskara Elkarteak, irailean ospatuko den Euskal Jaia iragarriko duen karteleko irudia zein izango den erabakitzeko.

Aro berriko XX. Euskal Jaia izango da aurtengoa eta irailaren 30ean ospatuko da. Lehiaketara aurkezten diren kartelek derrigorrez testu hau eraman beharko dute: “Euskal Jaia 2017 Deba” (euskara hutsean). Partaideek lan bakarria aurkeztu dezakete lehiaketara. Lanaren neurria A2 edo proportzionala (420x594 mm)

izango da, eta formatuak nahitaez bertikala izan beharko du (teknika libre). Aurreko edizioetako parte-hartzaileen eskaerak aintzat hartuta, kartela euskarri fisikokoan nahiz digitaletan aurkez daitezke.

Deba eta Itziarko herritarrentzat antolatzen da lehiaketa hau eta kartel irabazleak herritarrek hautatuko dute, botoen bidez, erakusketa batean. 300 euro jasoko ditu saritutako lanak, Euskal Jaia iragartzeko erabiliko da eta Zuhatzaren esku geratuko da (lana inprimatu, argitaratu

eta haren zabalkundea egiteko eskubidearekin).

Lanak aurkezteko epea uztailearen 13an, osteguna, eguerdiko 13:00etan, amaituko da. Zuhatzaren bulegoan aurkez daitezke, baita zuhatza2@gmail.com posta elektronikokoaren bitartez helarazi ere. Informazio gehiagorako, deitu 943 19 13 83 telefono zenbakira edo pasa zuzenean elkartetik (Ifar kalea 12, behea). Animatu eta parte hartu!

Zuhatza Euskara Elkarteak

BERRIKETAN

Ifar kalea, 12 behea
20820 Deba

Telefona: 943 19 13 83

Aldizkariaren e-maila:

berriketan@zuhatza.com

Elkartearen e-maila:

koordinatzailea@zuhatza.com

ARGITARATZAILEA



LAGUNTZAILEAK



Debako Udala



Hezkuntza, Hizuntza Politika eta Kultura Sailak (Hezkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

Argitaratzailea:

Zuhatza Euskara Elkarteak

Erredakzio taldea eta kolaboratzaileak:

Nagore Dorronsoro, Xabier Laka, Ina Oiartzabal, Koldo Aperribai, Lukax Dorronsoro, Izaro Aulestiarte, Ibon Urkia, Maite Rodriguez, Gilen Garcia, Eider Zulaika, Idoia Gereñu, Goizane Aizpurua, Haika Aizpurua, Nekane Goikoetxea, Mattin Urbietta, Mikel Aizpurua, Errima Frustratuen Kluba, Mendata BHI-ko prentsa tailerra.

Koordinatzailea:

Izaro Aulestiarte

Azaleko irudia: Eskutik Eskura taldea

Publizitatea: Joseba Escudero eta Koldo Aperribai **Tlfnoa.:** 943 19 13 83

Logotipoaren diseinua: Iñaki Elosua

Maketazioa: Leire Rubio

Inprimategia: Euskalinpri


Tirada: 1.400 ale

Lege gordailua: SS-246-2009

ISSN 2171-7656

OHARRA:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitako erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak gehienez 25 lerro izan beharko ditu eta berriketan@zuhatza.com helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.



Berriketan-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: berriketan@zuhatza.com edo koordinatzailea@zuhatza.com.

Eskerrik asko eta datorren urtera arte!


XXXI. Antzerki Astea maiatzaren 26an hasi eta, hasten den guztia bukatzen denez, aurtengoa ekainaren 4an bukatu zen.

Ikusi nahi izan duenak ate-joka izan ditu antzezlanak. Etorritako taldeek gaur egungo gaiak, eta aldi berean erakargarriak, taularatu dituzte.

Oraingoan, etorritako guztiei eskerrak ematera gatoz. Antzerki Asteak gure artean hogeita hamaika urte iraun badu, zuei esker da. Mila esker ekintza hau ahalbidetu duzuen guztioi.

Datorren urtera arte.

Goaz Antzerki Taldea



Eneritz Tambo Lazkanori erantzuna (Berriketan, 2017ko apirila)

Artikulu honetan hainbat kontu nahastun dira gure ustez; mahai gainean jarri nahi ditugun hainbat kontu. Izan ere, erabakitze-ko eskubidearen kontzeptuarekin ados egonik ere, bere papera indartuko duen erabile-
ra praktikoa da garrantzitsua eta gure herriaren kulturen gizarteratzea lortuko duena. Eta TETen sorrera prozesua ez da adibiderik onena, hain zuzen ere. Eta hori azalduko dugu:

1) Eneritz estimatua, bidezkoa iruditzen zaizu herritarren %20k (kasu honetan Itziarko TETen barruan daudenak), Debako udalerrriak duen azalera guztiaren %92,50 kudeatzea eta horien adjudikaziodun izatea? Eta debarren gainerako %80k ez izatea inolako erabakimenik lurraldetasunean?

2) Uste duzu erabakitze-ko eskubidearen filosofia aplikatu zela, 2014ko ekainaren 17an Debako Udalak egindako plenoan, TETa onartu ahal izateko **legedia espainiarra** hartu zenean (**Aznarren gobernuan onartutako apirilaren 2ko 7/1985 Legea**), non **gehiengo soila** nahikoa zen, hau da, zazpi zinegotziren baietza, TETen sorrerarako momentu hartan udaletxean zeuden aldeko botoekin **gehiengo kalifikaturik** (hau da, martxoaren 17ko 2/2002 Foru

Arauk eskatzen zituen **9 zinegotziren baietza**) lortu ezin zelako?

3) Lehen aipatutako plenoa egin baino **bi egun lehenago**, Gipuzkoako Foru Aldundiko aholkularitza juridikoak Debako udalari bidalitako txosten baten bidez, konfirmatu zela lege espainol hori erabiltzeko aukera.

4) Foru Aldundiaren txosten hura ez zela TETen tramitazio espedientearen parte izan, ez zelako denbora eta forman behar bezala entregatu. Izan ere, Debako zenbait zinegotzik plenoa egin baino egun bat lehenago izan zuten txosten haren berri.

5) Debako udalerrientzako hain garrantzitsua den gai honetan, TETen sorreran, uste duzu demokrazia parte hartzailea erabili zela, interes partidistengatik legedi espainola aplikatu zenean legedi foralaren kaltetan? Ez ote zen erabakitze-ko eskubidearen filosofiarekin bat eginez, egokiago, akordioa "adostea"?

6) TETen sorrera prozesuan beharrezkoa zen Itziar eta auzoetako herritarrei kontsulta egitea. Kontsulta auzoz auzo, independenteki, egitea eskatu zen. Baina TETen sustatzaileak auzoz auzo egitearen kontra azaldu ziren eta hautetsontzi bakarra defini-

tu zuten. Zalantzak ote zeuden auzoren batean TET sortzeari EZ esango ote zioten? Kasu horretan auzoei banan bana erabakitze-ko eskubidea unilateralki ukatu zitzaizen ala ez?

Beraz, praktikan erakutsi behar da, egiazki, ondo erabiltzen dela erabakitze-ko eskubidea.

Beste maila batean, herritarren artean alarmak piztea egozten zaigu. Ez behin eta berriz esateagatik, konfirmatuko dira horrelakoak, guztiz alderantziz baizik. Oraindik argitzeko zain gaude, ze motatako alarmez ari ote zaren.

Egia bakarra eta konstatatu daitekeena da DAK bere hauteskunde programan eta TET sortzeari buruz, honako hau esan zuela: "Lurraldeari dagokionez, Itziar eta Itxaspera mugatuko litzatekeen Tokiko Erakunde Txikia sortzea proposatzen dugu...". Hortaz hitz egin behar da eta ez zurrumurrulogiaz.

Azken buruan, gure zabaltasuna erabatekoa da udalerriko herritar guztien interesak errespetatuko dituzten akordio adostu eta iraupenez luzeak erdiesteko.

Debako Udaleko

Tokiko Gobernu Batzordea

urlo
SERVICIOS INMOBILIARIOS
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

API
Nº 379

Higiezin Zerbitzuak
Aholkularitza
Higiezin Agentzia
Komunitateen administrazioa
Tasazioak/ Balioztaketak

Sokagin, 2 bajo
Apartado 3
20820 DEBA

Tel.: 943 192 471
Tel./Fax: 943 192 303
urlo@urlosi.net

ASKETA, S.L.

ERAKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:
Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
E-mail: asketa@telefonica.net
www.asketa.net

ALMACÉN:
Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
20850 MENDARO (Gipuzkoa)

K21
KALITATEA
Empresa Registrada Nº 2 / 05 / 049
NIVEL 2

Xabier Lakaren artikuluarri erantzuna (*Berriketan, 2017ko apirila*)

“Ez gara erraldoiak, haize errota bai- zik” izenburuarekin Xabier Lakak argitara- tutako artikulua ikurri eta gero, ondorio honetara iritsi gara: artikulua egileak ez ditu ezagutzen azken aldiak TET eta Debako Udalaren artean gertatu direnak eta ez ditu ezagutzen udal honetako gobernuak TOKI ERAKUNDE TXIKI honekin ados ez ego- teko dituen arrazoiak.

Hasi aurretik, berriz esan nahi genuke, udal honek ez duela sekula TETek diseina- tutako autogestio sistema zalantzan jarri, ezta bere antolaketa, funtzionamendua, e.a. ere. Alderantziz, baizik. Ikusten dugu Itziarko auzotar askoren inplikazioa egon dela eta hori positiboa da.

Beraz, argi lagatzearen, gure ikuspun- tutik behintzat, artikuluan planteatzen diren gaien ingurukoak nola joan diren, gai hauen gaineko xehetasunak azaltzen saiatuko gara:

- AURREKONTUAK

2017ko martxoaren 7an, 236 erregistro zenbakiarekin, idatzia bidali zen TETera. 2017. urteko aurrekontua kalkulatzeko era- bilitako irizpidea azaltzeaz aparte, hauxe esaten zen testualki bertan: *“Por último y con respecto a los presupuestos de la ELM al tener presupuestos un destino eminentemente finalista, resulta preceptivo conocer los concep- tos y partidas presupuestarias a las que van a ser destinadas...”*.

Aurrekontu partidetan bereizitako aurrekontu proposamena eskatzearena, udal honetako zerbitzu teknikoan txostene- tan jasotakoa kontuan hartuz egin zen, haie- tan esaten baitzen derrigorrezkoa zela aurrekontuan esandako moduan edukitzea.

Hala ere, TETek behin baino gehiago- tan egin zion uko proposamen hura bidal- tzeari. Udal plenoa egiteko BI EGUN falta zirenean, hau da, 2017ko martxoaren 28an, jaso zen Xabier Lakak aipatu duen propo-

samena (kontzeptu eta aurrekontu parti- den arabera), ordurako aurrekontuak itxita zeudenean.

Beraz, TET izan da bere aurrekontua, dagokion denboran eta moduan, onartu ez izanaren erantzule bakarra.

- HITZARMENA

Adostu gabeko hitzarmen bat onartu izana aurpegiratzen zaigu. Egia, halaxe da, baina Xabier Lakak esplikatzeko ez duena da 2017ko otsailaren 13an bidalitako bilera deian aztergaien artean zegoela hitzarme- naren eztabaida eta TET, inolako erantzun- nik eman gabe, ez zela bilerara etorri (hala jasota agertzen da Debako udaletxeko idazkariak egindako bilera-aktan).

Laburbilduz, urtarrilaren 2015/3/27ko Foru Dekretuan agindutakoa betetzeko, bi erakundeen arteko harremana ordenatuko duen araua onartu beharrean aurkitu ginen.

Esan behar da eta insistitu, hitzarmena eztabaidatzeko ekimena beti izan dela Debako Udalarena, 2015eko abenduan egin zen lehenengo bileratik, eta ez dela inoiz egon TETen aldetik, zeuden desadostasunak konpontzen saiatzeko inolako iniziatibarik.

Amaitzeko Debako Udalaren eta gaur egungo TETen arteko benetako desadosta- suna aipatuko dugu.

Horretarako, aurrekariei buruz hitz egingo dugu:

2014KO EKAINAREN 17KO UDAL PLENOAREN ONARPENA

TETen sorrera espediente osoa martxo- aren 2003/2/17ko foru dekretuan oinarri- tuta garatu zen. Dekretu haren 29. artiku- luak, a) atalean dio, TET bat onartzeko beha- rrezkoa dela Udalaren onarpena, izatez, hura osatzen duten guztien bi herenen alde- ko botoarekin (hau da, korporazioa osatzen zuten 13 kideetatik bederatzik ados egon behar zuten).

Baina... orduko gobernu taldeak gehiago hori ez zuenez, OH SORPRESA, TET onartu ala ez erabakitzeke udal ple- noa egin baino bi egun lehenago, Foru Aldundiaren txosten bat jasotzen da. Udalean esaten duena apirilaren 2ko 7/1985 legea aplikatu zitekeela (orduko Aznarren Gobernuak onartutako Legea) eta, haren arabera, gehiago soila nahiko zatekeela (hau da, 7 zinegotziren baietza; egin zen bezala).

Noski, ez dugu “legalitate espainiarra” dudan jartzen, baina ulertuko da gure ikus- puntutik ez zela “joko garbia” izan; ez era- bakia, ezta 2014ko ekainaren 17ko udal akor- dioaren inguruan gertatutako guztia ere.

Azkenik, nabarmendu, gaur egungo TETengandik urruntzen gaituen BENETA- KO ARAZOA lurraldetasuna dela, ez bes- terik. Kurioso da ikustea TETeko partai- deen idatzi artikuluetan ez dela SEKULA kontu hau aipatzen.

Jakina denez, gure hauteskunde pro- graman argi azaltzen zen lurraldetasuna- ren kontua; hau da, Itziar-Itxaspe, eta horri heldu behar diogu momentu hauetan.

TET eta Debako Udalaren artean lanki- detza, errespetua, elkarbizitza,... egon behar dela adierazten du Xabier Lakak bere arti- kuluan. Zentzu horretan, hitzetatik ekintze- tara pasa behar da baina ez da, gero, horre- lakorik ikusten (lehen esan bezala, TET ez zen deitutako bilerara etorri eta ez zuen justifikaziorik eskaini, erakundearen aldetik ez da lankidetzarako intentziorik adierazi, e.a).

Beraz, elkarrizketa berreskuratzeko garaiz gaude oraindik. Udal honek lanean segituko du, denboran iraungo duen eta alde guztien interesak errespetatuko dituen akordio bat erdiesteko.

Debako Udaleko

Tokiko Gobernu Batzordea



ALBIZU
HARATEGIA

Larsundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)



IZARZA
TABERNA

Ostolaza, 5
DEBA
Tel.: 943 191 197



IZENBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak

Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA





GILEN GARCIA

Etxea

Badira bost urte Debatik kanpo bizi naizela eta badirudi halaxe izaten jarraituko duela denboraldi batez, baina Euskal Herriarekiko eta Debarekiko loturak bere horretan darrai. Urte hauetan zehar bizipen ugari izan ditut eta hainbeste gauza ezberdinei hasiera eman eta gero, ez dut nire burua gai ikusten etorkizuneko iragarpenik egiteko. Nirea bezalakoa izan da, eta izaten ari da, gazte askoren bizimodua, ziurtasun gutxi eta zalantzez beterikoa. Hasiera batean ziurgabetasun hori amorru handiz kritikatzeko nuen, izan ere ezin-negon handia sorrarazten zidan sententzia zen, baina gaur egun, etorkizunerako aurreikuspenak egitea zaila den honetan, atzera begiratu eta orain arte egindako ibilbideari egiten diot kasu aurrerantzean etorriko zaidanaren beldur ez izateko asmoarekin.

Unibertsitate ikasketak amaitu ondoren, emantzipazio prozesu bati hasiera ematen saiatu nintzen, nire anaiarekin batera, Bizkaiko txoko paregabe batean dugun baserri batean. Garai nahasiak ziren gure etxean eta sentimendu asko kudeatzeko garaia izan zen hura; hala eta guztiz ere, gure proiektuari ekin genion eta pixkanaka-pixkanaka autookupaziorako proiektu bat izan zitekeena abiatzeko oinarriak jarri genituen. Ez da dena hain erraza, ordea! Famili kontuak tarteko, proiektu hutsean geratu zen dena eta ezin izan genuen gure asmorik burutu.

Nire nahi hura betetzeko ezintasunak erabakiak hartzera bultzatu ninduen eta, ingelera ikasteko aitzakiarekin, Belfastera joan nintzen. Hiru hilabeterako aurreikusitako egonaldia hiru urteko esperientzia bilakatu zen. Beste kultura eta hizkuntza batean murgildu eta haiengandik ikasteko aukera aparta izan zen Irlandakoa. Beti "etxetik kanpo" izatearen sentipena kudeatzen ikasten nuen bitartean, neure bizimodua eta "etxea" sortzen ere ikasi nuen. Nire auzoan aktiboki parte

hartzeko eta lan egiteko aukera izan nuen, gaur egun handik urruti nago baina gertu sentitzen ditut, nolabait ere hura nire etxea ere badelako.

Maitasunak bultzatuta Herrialde Katalanetara egin nuen jauzi, horrelakorik ez nuen espero, baina espero ez izanagatik gertatu zen agian... Reusek hartu nau oraingoan eta ahal dudan heinean nire etxea berriro ere egiten saiatzen ari naiz; oraingo honetan bikotean bizitzea, katalana ikastea, lan merkatuan txoko bat topatzea, kultura eta egiteko modu ezberdinetara moldatzea eta abar luze bat tokatu zaizkit bizitzako lezio. Kataluniako prozesu politikoa ezin nezake aipatu gabe utzi; erreferendum baterako data jarria dute, baita espainolen debekua ere, baina euren bidetara jarraitzen diote, badakite nondik datozen eta gutxi gorabehera norantz joan nahi duten. Ez da gutxi.

Nahiz eta Belfasten ere debarren bisitak jaso, Katalunian bizitzeak joko handiago ematen du Euskal Herriarekiko eta nire herriarekiko lotura hori mantentzeko; duela bi hilabete inguru debarren eta reustarren artean egindako topaketak ondo adierazten du lotura horren tamaina. Laster etorriko omen da topaketa horren bigarren edizioa gure herrira, ospakizun ederra izango delakoan nago!

Pertsonok, komunitateok, herriok, bidea dugu egiteko. Gure erabakiek ibilbideari forma eta kolore ezberdinak emango dizkiote. Jakinik zein den orain arteko ibilbidea gure erabakiak hobeto aukeratzen ikasiko dugu eta etorkizuneko ziurgabetasunei aurre egiteko tresna gehiago izango ditugu. Gure etxea eraikitzean datza ibilbidea. Gureganaino heldu diren irakaspen eta balioak etorkizuneko etxearen mesedetan jartzeari esan nahi du arbasoen etxea defendatzeak.



Liburu batean bildu dute Praileaitz I kobazuloan 2000-2009 bitartean egindako lanek emandakoa

Berriki aurkeztu da Praileaitz I liburua, barrunbe horretan 2000. eta 2009. urtera bitarte egindako indusketa arkeologikoen emaitzak biltzen dituen monografikoa. Deban kokatua dagoen aztarnategi honen ezaugarri garrantzitsuenen berri-kuste bat egiten du publikazioak.

Liburuaren aurkezpena maiatzaren 22an egin zen, Gipuzkoako Foru Aldundiko prentsa aretoan. Xabier Peñalver indusketa eta ikerketa proiektuaren zuzendariak, eta zuzendariorde diren Sonia San Jose arkeologoak eta Jose Antonio Mujika-Alustiza Historian doktoreak egin dituzte editore lanak, eta argitalpena lan kolektibo bat dela nabarmendu dute. Eremu eta laborategi lanak burutzeko, Peñalverrek zuzendutako jakintza alor anitzeko talde bat aritu da lanean –herrialde desberdinetako 20 erakunde eta 38 ikertzailez osatuta dago taldea–.

Monografiko hau *Munibe Monographs, Anthropology and Archaeology Series* argitalpeneko lehen alea da, Aranzadi elkar-terteak bultzatutakoa, aldundiaren, udaletxe ezberdinen eta zenbait eragile pribaturen laguntzaz.

Liburuaren sortze prozesua ikerketa proiektuarekin batera hasi zen, duela 17 urte baino gehiago, 2.000 urtean, hain zuzen ere. Monografikoa paperezko edizioan zein bertsio digital libreaan dago eskuragarri (Aranzadiren webgunean artikulutan banatuta irakur daiteke: www.aranzadi.eus/munibe-monographs-anthropology-and-archaeology-series-1).

Indusketa arkeologikoen garrantzia iragana berregiteko gaitasuna dela nabarmendu zuen Peñalverrek aurkezpen ekitaldian. Arkeologoaren hitzetan, “Praileaitz I kobazuloan, non kultura jarduerak eta erritoak egon ziren, aurkikuntza garrantzitsuenak 29 zintzilikari izan dira, gehienak harri beltzak eta dekoratuak, lepokotan multzokatua; gainera, okrezko arkatzak eta beste motatako arte higigarria azaleratu da. Hori gutxi balitz, barrunbean labar pinturen zantzuak ere agertu dira”. Peñalverrek eskerrak eman nahi izan zizkion “lan egiteko prestutasuna momentu orotan adierazi duen lantaldeari”, eta Europako hezkuntzan eta kulturaren ospe handiko per-



tsonen laguntza ere goraipatu zuen.

Maiatzaren 26an “Praileaitz I: iragana, orainaldia eta etorkizuna” izenburuko hitzaldia eskaini zuen Peñalver arkeologoak Donostian, eta Mutrikun ere solasaldia egin zuen hilaren 31n, Europako Geoparkeen Astearen baitan antolatuta.

Indusketa kanpaina berria

Kobazuloaren ikerketak asko eman du orain artean, “baina askoz ere gehiago emateko bidean” ikusten du oraindik Peñalverrek. Liburua aurkezteko agerraldian azaldu bezala, indusketa kanpaina berri bati ekin diote ekainean eta uztailearen hasierara arte iraungo du. 2014. urtean bigarren sarrera bat aurkitu zuten leizean, eta eremu horretan ari dira lanean ordutik. Zentimetro gutxi batzuk besterik ez zuen sarrerak aurkitu zutenean, baina magalean egindako lanen ondorioz, hiru metro inguru ditu gaur egun. “Askoz ere aspaldikoagoak diren garaietan murgiltzeko ate berriak ireki zaizkigu, Erdi Paleolitoan zehazki, neandertalen aroan”. Beraz, duela 40.000 eta 125.000 urte bitarteko garaietara iristeko aukera egon daiteke. Garai hartako aztarna batzuk atera dituzte dagoeneko, eta etorkizunean “aurkikuntza nabarmenak” egitea espero dute.

Aldats pilotalekua txiki gelditu zen Kulunka taldeko kideen jaialdia ikusteko

Ikasturte amaierako jaialdia egin zuten Kulunka taldeko kideek joan den ekainaren 10ean (larunbata). Urtero legez, ikusmin handia sortu zuen hitzorduak eta Aldats pilotalekua txiki gelditu zen ikusle guztiak hartzeko. Sarrera guztiak agortu ziren, 800 inguru, eta emanaldia hasi baino ordu-bete lehenago ikus zitekeen plaza berriraino iristen zen jende ilara.

Adin ezberdineko ehundik gora ikaslek parte hartu zuten jaialdian eta ikasturtean zehar prestatutako estilo ezberdineko 19 koreografia taularatu zituzten. Dantzarietako txaloak ez ziren falta izan eta koreografiak eta bestelako lan guztiak aurrera ateratzen aritu diren irakasleekiko esker ona ere adierazi zuten frontoian bildutakoek. Amaiera borobila ikasturteari.



Gernika asko dago munduan. Gu ere errefuxiatuak izan ginen



Errefuxiatuen aldeko martxa (Gernikan, 2017ko apirilean)



Gurs kontzentrazio esparrua, 1939-1945

Joan den apirilaren 28-29-30ean, Gernika gogoan, Ongi Etorri Errefuxiatuak plataformak hainbat sensibilizazio eta mobilizazio ekitaldi antolatu zituen, gaur egun Sirian, Iraken, Afganistanen, Mendebaldeko Saharan, Yemenen edo Palestinan gertatzen ari diren *Gernikei* buruz. Gernika horiek guztiak, gerra eta gosetea direla medio, ehunka mila errefuxiatu pilatu arazi dituzte, inolako giza baliabiderik gabe, Europako ateetan, eta milaka jende itoarazi Mediterraneoan (2015ean 3.777 ito ziren eta 2.016an 5.000tik gora), N.B.en Errefuxiatuentzako Mandataritza Gorenak dioenez, hauek hiltzat aitortuak soilik direla). Ez dabil gerra eta gosete horietatik urruti gerretatik aberasten direnak, multinazionalen bidez Afrika, Amerika eta Asiako aberastasunen jabe egiten direnak, eurek eragin dituzten krisi eta lapurretak direla medio, beroiek pizten dituztelarik arrazakeria eta islam-fobia.

Apirilaren 29an, milaka herritarrek jo zuten Euskal Herri osotik eta beste nazioetatik Gernikarantz, eta hainbat lurraldetako beste errefuxiatu askok ere bai. Handik eta hemendik zetozen jende

errenkadak Muxikan elkartu ziren eta isilik joan ginen handik Gernikaraino. Herri honen sarreran, Ignazio Robles-ek, Bilboko portuan Saudi Arabiarako arma kargamendua zaintzen parte hartzeari uko egin zion suhiltzaile bizkaitarrak, malko erraldoi gorri bat eman zion Maryam Fathy errefuxiatu kurduari. Azkeneko kilometroa Euskal Herrian bizi diren errefuxiatuak buru zirela egin zuten, eskuetan malko gorriak zeramatzatela, *GERNIKA* koadro handi bat erakusten zuen plazaraino. Pilar Ostolaza -bere amak Donostiatik ihes egin behar izan zuelako, Gernikan jaio eta, handik hilabete gutxira Frantziara errefuxiatua izan zen- 80 urteko martxa-kide donostiarrak eman zion Martxari ongietorria.

Gu ere errefuxiatuak izan ginen **

Agirre Lehendakariaren gobernuko datuen arabera, 150.000 euskal errefuxiatu jaso zituen frantziar Estatuak. Estatistikek jaso gabeak milaka izan ziren Landetako herri txikietan eta kontzentrazio esparruetan sakabanatuak. 6.555 euskaldun inguru sartu zituzten Gurs-eko atxilotze esparruetan (1939-05-10), Juan Diaz Egaña eta beste debar

batzuk haien artean; haietako asko, Dachauko sarraski esparrura eraman zituzten, non galdu zuen bizia, beste milaka jende bezala, Jose Maria Irusta Mugarza debarrak (Deba 1908-Dachau 1944).

Franco Bartzelonan sartu zenean, polizia frantziarrak milaka errefuxiatu entregatu zizkion Espainiakoari, eta, ondoren, langile batailoietan sartzera behartu zituzten gizonezkoak. Eusko Jaurlaritzak atzerrian emandako zifren arabera, era batera edo bestera, 80.000 errefuxiatu itzuli ziren, eta, 70.000 sakabanatu European zehar, URSS-en barne. II Mundu Gerra hasi zenetik aurrera, Venezuela, Mexiko, Argentina eta Txilera joan ziren asko.

Haur erbesteratuak dagokienez, Euskal Gizarte Laguntzak emandako zifraren arabera, 37.930 haur zeuden erbesteratuak 1938an; horietatik 22.234 Frantzian, 3.956 Britainia Handian, 3.201 Belgikan, 1.889 URSS-en eta abar. Bereziki hunkigarriak gertatu ziren senideen arteko agurtze uneak haurrak Santurtzi SS Habana itsasontzira igotzerakoan. Lehenbiziko itsasontziratzea 1937ko maiatzaren 21ean egin zuten

***(Egaña, Iñaki (2011). "El franquismo en Euskal Herria. La solución final". Euskal Memoria Fundazioa.)*



AUKERA
INMOBILIARIA

www.aukera-inmobiliaria.com
Aukerarik onena!

943 12 13 95

API 447



Errefuxiatuak, patera batean



Habana itsasontzia

Bretainia Handirako, 3 eta 14 urte bitarteko 3.861 haur, 200 irakasle eta 15 apaiz zeramatzala. Bigarren itsasontzi-ratzea ekainaren 13an egin zuten San Petesburgorako, 1994 haur eta 72 irakasle zeramatzala; honek Bordelen egin zuen eskala, erbesteratuak Sontay itsasontzira aldatuz.

Ingalaterraren hegoaldeko Southampton-era heldu ziren haurrak herrialde guztian zehar sakabanatutako kolonietan banatu zituzten. Bilbo frankisten atzaparretan erori zenean, Erreinu Batuko "Basque children"ak berraberriratzten hasi ziren eta, 1939an II Mundu Gerra hasi zenerako, haur haietatik gehienak Euskal Herrira itzuliak ziren. URSS-era joan ziren haurretatik %10 hilak gertatu ziren II Mundu Gerran, eta, Europa kontinentalean familiekin geratu zirenetatik askok jaso zituzten sendiekin batera eman zuten azken arnasa Dachau-n, Auschwitz-en edo Mathausen-en.

Euskal haurrak **Bretainia Handira** eraman eta han zaintzerakoan bizi izandako egoera, agian, **alternatiba** egokia izan daiteke 2017an European gertatzen ari zaigunari erantzuteko.

Bretainia Handiak eta beste herrialde batzuek gerran Ez Parte hartzeko Ituna izenpetu zuten, borrokatik at zeuden paperean bederen. Hala ere, Gernika bonbardatu zutenean, nazioarte mailak eta **ingeles hiritarren herri ahaleginak** lortu zuen gobernuak frontierak ireki zitzaizkan, egoera bereziko haurrak atera ahal izateko. Gobernu ingelesak, hasieran errefuxiatuak hartzearen erabat aurka jarri zen arren, azkenean onartu zuen euskal haurrak ebakutzeari, horretarako funts publikorik ez erabiltzekotan. Hori zela eta, **euskal errefuxiatuei eman zitzaizkien laguntza boluntarioen esku egon zen erabat**, arrazoi humanitario edo politikoengatik kolaboratzera prestatu zen "**gizarte zibila martxan**"-en esku. Jim Fyrth historialariaren hitzetan, esperientzia honek "ia Bretainia Handi osoari eragin zion eta jende askoren bizi-giroak aldatu zituen, lurralde honen eta euskal lurren artean lotura iraunkorrak lortuz".

**Euskal Herria harrera oneko
lurraldea da
Ongi Etorri Errefuxiatuak**

Jose Luis Albizu eta Lukax Dorronsoro



Jose M^o Irusta Mugarza debarra (1908-1944)



Juan Diaz Egaña (biboteduna), lehengo Iñaxio tabernaren koadroan



ekodenda,
dietetika,
belardenda

ZERBITZUAK:

- * Fisioterapia: teknarterapia (INDIVA)-drenaje linfatikoa -lesioak -...
- * Gimnasia hipopresiboak * Dietista * Podologia

Lesandi, 14 943 19 24 42 sasoiiko@hotmail.com



Zesterokua Plaza
Tel.: 943 029 376

Bazkariak: 13:00 / 16:00
Afarriak: 20:00 / 23:00

BEREZITASUNA PARRILAN:

- Asteburuko menuak - Parrilan menuak - Mokadu eta pintxoak
- Plater konbinatuak - Etxera eramateko jakiak - Ospakizunak



Debako gazteak, kooperazio lanetan Saharan

Apirilaren 8a zen muga. Bi urteko ibilbidea amaitzen genuen, baina benetako bidaiak hastear baino ez geneukan. Gazi-geza zen esnatzean gure barnean kili-kili zebilen intsektu-zoologiko urduriak sabelean atximurka egitean helarazten zigun sentipena: saihestezina zen, zetorrenari inoiz baino irrika handiagoz begiratu arren, dagoeneko igaro zenaren nostalgieren oihartzuna entzutea.

Proiektuarekin batera hazi eta heldu egin ginen gu ere. Ezjakintasun, inozentzia baina burugogortasun sentimendu batek gidatuta hasi ginen 2015eko irailean, kasualitatez edo. Prozesu guztian zehar, ordea, helmugak finkatzen joan ginen pixkanaka, eta handik eta hemendik adar zati txikiak lortu genituen, apirilaren 8an jaioko zenaren habia osatzeko: saharar eta munduko beste zenbait herriren egoera lotsagarriaz kontzientziaz gainera, norberaren nahiak elkarren desio bihurtu eta talde-lanean aritzen ikasi genuen, elkarren arteko konfiantzan oinarrituta, bi urtetan egindako esfortzu guztia, gorabeherak gorabehera, zazpi egunetako bidaiak batean islatzeko. Idazle, bertsolari, sukaldari, postari, kartel-diseinatzaile, erakusketa-zaintzaile, sal genezakeen edozein gauza-saltzaile... izan gara, kooperante, taldekide, lagun. Ostiral arratsaldeko saioek gure lan eta ahaleginaz harro sentitzea ahalbidetu digute. Eta, batez ere, disfrutatu egin dugu, asko gainera.

Baina aipatutakoa ezer gutxi da kanpamenduetan ikasitakoarekin konparatuta. 40 urtez bizi duin bat itzarotearen esperientziaren ondorioa da zure etxean sartzen den pertsona orori bizitzari buruzko irakaskuntzak ematea, apenas hitzik esan

gabe. Ingurua behatu ondoren familia-kideetako bakoitzari begietara begiratzea besterik ez dago: eguna garbitzen eta sukaldatzen pasatzea baino aukera gehiago izan ez duen amonaren begi ilun zimurtuak, odol eta negar gazitan itotako iraganaren oroitzapenen isla; oraindik itzali ez diren itzaropenez betetako haurren argi irrikorak, zeinak astronauta edo maisu edo mediku erantzun beharrean, herria defendatu nahi duela esaten dizun handitan zer izan nahi duen galdetzen diozunean; kartzelariaren antzera eguzkiak zelatatzen duen errutina monotono hartatik at beste edozein lekutara ihes egingo lukeen gaztearen begi-nini akituak, anbizio-begiak, begi umelak. Kokoteraino dauden begiak, malkotan kokoteraino.

Honen guztiaren aurrean, familia bilakatzen da ezinbesteko babes eta euskarri. Sahararrek elkarri dioten maitasunak harresiak, mugak, sekretuan egiten diren bilerak eta munduan zabaldua dagoen berekoikeria gainditzen ditu. Bazkalostean, dagoeneko konfiantza giroan etzanda, betidaniko harremanetako intimitatetik irudi bat lapurtu nien Lkori eta Embarcari. Hogeituro semeak amari hondarrez zikindutako oinak garbitzen zizkion biak lurrean eserita zeudela, gainerako taldekideekin hizketan baina hain eurena zen momentua elkarbanatuz. Poliki-poliki, ez ur eta ez eskularru, izerdia izerdian. Konplizitate, mugimendu eta esku haiek igortzen zuten samurtasun eta goxotasun horri behatu nion kontzienteki, eta, hiru segundotako oroimena bada ere, inoiz ikusi dudana afektu-erakusgarri egiazkoena iruditu zitzaidan.

Guk ere izan genuen astia maitasun horren zatitxo handi

Bertan burututako lanen nondik norakoak



Deba, Elgoibar eta Mutrikun egin-dako eskola eta ospitalearako material bilketan 300 kg batu genituen eta Rabuniko Ospitale Zentralean eta Aaiumeko bi eskolatan banatu genuen materiala. Eskerrik asko bilketan parte hartu zenuten guztioi!

Gainera, Debako Udalaren laguntzari esker, hiru egitasmo jarri genituen abian:

Batetik, kanpamenduetako egoeraz jabetuta -ura edateko dauzkaten deposituak guztiz herdoilduta, zulatuta eta kutsatuta daude; beraz, familiek ez



dute daukaten ur gutxia garbi edateko aukerarik, horrek osasunarentzat dakartzan ondorio guztiekin-, behar gehien duten familiei 25 ur depositu banatu genizkien Aaiumen.

Bestetik, Olof Palmeko emakume eskolan informatika gela ikaslez beteta zegoela ikusita, irailetik aurrera izen-ematea handiagoa izan dadin, ordenagailu eta antzeko materialak erosten lagundu genien.

Bukatzeko, Elorrioko Institutuak urte luzeetan esku artean daukan proiektuaren arrakastaren jarraipena



eginda, "Deba Baratza" sortzeko bidean gaudela jakinarazi nahi dizuegu! Bertatik lortzen diren barazki eta fruituak ospitaleko erabiltzaileak elikatze-ko baliatuko dira. Hemendik eskerrak eman nahi dizkiegu Altselmori, Joxe Ramoni eta Alieni beraien laguntzarik gabe hau guztia ez litzatekeelako posible izango.

Ekainean, Debako Institutuan sahararren egoeraren eta gure bidaiaren inguruko hizketaldiak emango ditugu. Irailetik aurrera, berriz, Mutrikuko eta Elgoibarko institutuetan izango gara.

bat jasotzeko. Ez familiek soilik, bertan ezagututako pertsona guztiek eskaini ziguten euren laguntza, konfiantza eta laztantazuna. Eroso sentiarazi gintuzten momenturo. Goizeko hirurak arte geratu ginen behin berrikeretan, ondoz ondo eta manta berdinen azpian egin genuen lo Fatimetu eta biok, janaria ahora eman ziguten henna zela eta eskuak erabili ezin izan genituenean, euren amodio eta amodio-ezen nondik norakoak kontatu zizkiguten, Hammak, gure gida boluntarioak, "Kaixo familia!" batekin agurtzen gintuen goizero-goizero, Maddi margolariak bere etxe eta liburutegiko atea zabaldu zizkigun bere dendara bisita bakarra egin ostean, gaixotzean mediku onenak egingo ez zuen moduan zaindu zuten Lide... eta hau guztia naturaltasunetik eman ziguten, eta halaxe jaso genuen baita guk ere. Furgonetaren atzealdea gure konfesatoki zein karaoke zein ezkontza bankete pertsonal bilakatu zen.

Egoeraren garrantza ere ezagutzea nahitaezkoa zen, hala ere. Sahararren kontra erabilitako armak ikusi genituen, Eibarko fabriketan egindako armak. Bertan ginela, familiako 20 urteko ahizpa bat eskualde liberatuetara joan zen Alemanian sortutako pertsonen aurkako minak kentzera. Marokoko "Beltzen Kartzelako" baldintza penagarriak erakusten zituzten argazkiak eman zizkiguten. Etxeetan pairatzen duten pobrezia bizi genuen. Eta Brahimen etxe kanpoan negar egin genuen gu zein zorioneko baina zein berekoi ginen benetan konturatu ginenean.

Basamortua gertutik ezagutzen dute sahararrek. Bertan fisikoki bizitzeaz gain, euren barnea ere basamortutzen joan da poliki-poliki. Eguzkiak bizitzeko gogoatu die urtez urte, eta

euri ezak barruan zeuzkaten koloretako lore eta ametsak lehortu dizkie. Haizeak, berriz, askatasuna ostu die kanpamenduetako biztanleei, eta hondarrak frustrazioa eta monotonia pilatu ditu. Baina Saharan izarrak eta ilargia inon baino handi eta distiratsuagoak dira, eta, hauek pizturik jarraitzen duten bitartean, sahararrek barruan daukaten itxaropena ere ez da inoiz itzaliko.

Errealitate mikatz honetatik alde egiteko, tearen inguruan elkartzeko dira familia zein lagunak. Tea da euren elkargune, euren solaskide, euren moderatzaile. Beti dago basokada bat te edateko aitzakiarik. Gure gizarteko telebistarekin konparatu daiteke kanpamenduetako biztanleen tea, desberdintasun bakarra zera da, sahararrak euren artean berrikeretan dabilzala eten-gabe, gu pantaila ez denarentzako mutu, gor eta itsu gauden bitartean.

Hala dio saharar tearen inguruko kontakizun batek: *Lehenengo basokada bizitza bezain mingotsa da; bigarrena, maitasuna bezain gozoa; eta, hirugarrena berriz, heriotza bezain eztea.* Debatik apirilaren 8an hartu genuen autobusean arnasten zen hatsaren zaporea gazi-geza bazen, zazpi egunen buruan kanpamenduetatik Tindufeko aireportura eraman gintuenean dagoeneko atzean utzi genuen herriko usainak antzeman genituen: agurra mingotsa izan zen benetan, baina azken besarkaden maitasunak eta berriz elkar ikusiko genuelako fantasia edo ez hain fantasiaren ez-titasunak leundu egin ziguten malkoen zaporea garrantza.

Julia Ron Soto, Eskutik Eskura taldea eta Debako Gaztelekua

Herriko memoria historikoa berreskuratu eta ikertzeko proiektua abiatuko du Udalak

2019ra arte iraungo du egitasmoak eta Aranzadi Zientzia Elkarteak kudeatuko du

Aranzadi Zientzia Elkarteak proposatutako memoria historikoaren berreskurapen eta ikerketa proiektua aho batez onartu zuen Debako Udalbatzak maiztzeaz azken ohiko bilkuran.

1936-1945 urte bitartean izandako errepresio eta giza eskubideen urraketak aztertzea izango da egitasmo horren helburua, "iraganeko akatsez ikasi eta ahal den neurrian horiek konpontzeko, etorkizunean errepika ez daitezen".

Udalak adierazi du herriko memoria historikoa berreskuratzeko prozesuan lehen urratsak eman nahi direla Aranzadiren proiektua abian jarrita. Eta, bide horretan, herriko bizilagunen partehartzea ere "funtsezkoa" izango dela nabarmendu du. Izan ere, Debako Udalak apenas du Gerra Zibil eta frankismo aldiko dokumenturik, diktaduraren ondoren udal artxiboa erre baitzuten. Hainbat hitzaldi eta erakusketa antolatzea aurreikusten dute, baita memoria bulego bat zabaltzea ere, herriarrek euren etxeetan dituzten argazki, gutun eta bestelako dokumentuak jaso ahal izateko.

"Elkarlan honi esker, herritarrek gertatu zena ezagutzeko interes hori mantentzea lortuko da, memoria historikoaren berreskurapena egia, justiziaren eta biktimek duten kalte-ordaina jasotzeko eskubidearen aldeko talde lan bat izanik", azaldu dute udal arduradunek.



Ikerketak 42.350 euroko kostua izango du eta 2017-2019 artean gauzatu nahi dute. Hiru fase ezberdin izango ditu; lehenbizikoan, hainbat iturritatik (idatzita dauden liburu eta artikuluetatik, artxi-boetatik, bai gerra eta frankismoaren lehen urteak bizi izan zituzten biktimek bai eta gerraren ondorioz errepresaliatu edo hildakoen zuzeneko familiarren ahozko testigantzetatik, argazkietatik ...) datuak bilduko dira, horrela behin-behineko datu-basea osatuz.

Bigarren fase batean, jasotako dokumentu guztiak aztertu, argazkiak digitalizatu eta behin betiko datu-basea osatuko da, informazio honen guztiaren ikerketari ekin ahal izateko. Azkenik, 2019an

egindako ikerketa lana argitaratu eta zabalkunde emango zaio; bide batez, prozesuan parte hartu duten familiei jasotako ahozko testigantzen DVD bat entregatuz eta biktimei zuzendutako errepresazio ekitaldi edo omenaldiak prestatuz.

Bestalde, ohiko bilkura berean, Debako Udalararen 1960-2017 denboraldiko memoria politikak zehazteko proiektua ere aho batez onartu zen. Proiektu hori aurten egingo eta 7.000 euro inguruko kostua izango du (Gipuzkoako Foru Aldundiak lagunduta).

Udalak jakinarazi duenez, Bakeolak burutuko du ikerketa: "Bakea eta elkarbizitzaren kontuetan dagoen egoeraren diagnostia egin, partidu politikoek ikuspegiak aztertu eta gai honen inguruan aurrera pausak emateko momentu egokia den ala ez ondorioztatzea da" proiektuaren helburua.

Polentzi Markiegi gogoan

Memoria historikoa berreskuratzeko ahaleginean, bestalde, lantalde berezi bat osatu da azken hilabeteotan Deban. Herriko alkate zen Polentzi Markiegiren fusilamenduaren 80. urtemuga aurten betetzen da, urriaren 15ean. Hori dela eta, ekimen ezberdinez osatutako egitaraua prestatzen ari da lantaldea urrira begira -laster iragarriko dira aurreikusitako egitasmo eta hitzorduak-.

Debabarreneko turismoa sustatzeko plan estrategikoa aurkeztu dute

2020. urtera arte iraungo duen plan estrategikoa aurkeztu berri dute eskualdeko alkate, Debegesako arduradun eta Gipuzkoako Foru Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako turismo zuzendariak.

2008-2012 urteen bitartean abian izandako plana eguneratuko du plan berriak. Azaldu dutenez, "azken urteetan turismoaren arloan eman diren aldaketa nabarmenak kontuan izan eta turismo-helmuga lehiakor eta iraunkor bat" lortzea du helburu. 2015ean hasitako hausnarketa prozesu baten ondorioz prestatutako plan estrategikoa da, eta Aitziber Kortazar Debegesako Turismo eta Garapen Jasangarria saileko arduradunak adierazi duenez,



"Debabarrena nortasun propiodun turismo-helmuga bihurtzea da xedea". Plan estrategikoa www.debegesa.eus atarian kontsulta daiteke.

Mila esker eta ZAINDU MAITE DUZUN HORI!

2017ko ekaina, jada lau urte Hazitik ekodenda ireki genuela! A ze poza! Ilusio handiarekin ireki genuen denda, eta ilusio berberarekin jarraitzen dugu. Hazitik ekodenda ez delako denda bat bakarrik, Hazitik ekodenda lagunen arteko proiektu bat da. Herrian espazio bat izan nahi duena, gune bat, elikagai eta beste hainbat produktu ekologiko eskuratzeko aukera izateaz gain, hauen atzean dauden ekoizleak erakutsi nahi ditugulako, pertsonen, komunitatearen eta naturaren osasuna zaintzen dutelako, ekologikoa? logikoa. Harremanetarako gune ere izan nahi du Hazitik ekodendak, jarduera ezberdinak eginez, giro politoan hartu-emanak sendotu, eta ekintza desberdinen bitartez elkarrengandik ikusi eta ikasteko, betiere ondo pasatuz.

Horregatik hasi ginen, udaberriarekin batera, maiatzeko ekintzak egiten, eta aurten bigarren urtez hilabete polita izan dugu, ostiral guztietan ekintza ezberdinak burutuz. Iaz, eta aurten ere, haurrek landareak ezagutu, lurra ukitu, landaketa egin eta norberak zaindutakotik uzta jasotzeko aukera izan dute. Bertako baserritarrak ere izan ditugu gurean beraien produktuak nola egiten dituzten azaltzeko eta dastatzeko. Goiner-etik ere etorri zaizkigu, energia berriztagarriekin hornitzeko alternatibaren aukera ezagutzera emanez. Haurrek hazi ezberdinak ezagutzeko aukera izan dute, elkarrekin mandala bat osatuz. Musikaren soinu eta doinu ezberdinak praktikatu ditugu.



Ipuinak entzutearen gozamenaren probatu dugu. Eta makrobiotikaren nondik norakoak ikasi eta praktikatzeko tartea ere izan dugu. Aurten bertako pintxo pote goxo batekin eta kalearen pusketatxo bat zoragarri polita laga duen mural koloretsu batekin eman diogu amaiera maiatzari.

Eskerrak ematea besterik ez zaigu geratzen Hazitik ekodendara hurbiltzen zareten guztioi eta ekintza guztietan parte hartu duzuenoi, lau urte egin ditugulako zuei esker, eta hurrengo urterako beste hilabete koloretsu bat prestatzeko ilusioarekin geratzen garelako!

Mila esker eta ZAINDU MAITE DUZUN HORI!

Hazitik ekodenda

Martin Hernandez Beitia korrikalaria Espainiako aire libreko txapelketan lehiatuko da

Martin Hernandez Beitia gazteak ekainaren 24an eta 25ean Getafen (Madril, Espainia) jokatu den jubenil mailako aire libreko Espainiako Atletismo Txapelketan parte hartuko du, 800 metroko proban.

Maiatzaren 27an Euskadiko txapeldun izan zen 800 metroan jubenil mailan (1:57:37). Eta urrezko domina horrekin lortu zuen Espainiako txapelketarako minimoa eskuratzea.

Astebete beranduago, ekainaren 4an, txapeldunorde izatea lortu zuen debarrak Euskadiko txapelketa absolutuan, 800 metroko proban. Bere aurreko marka segundo batean ondu zuen (1:56:20), irabazle izan zen Adel Ben Miloud Iztueta (1:56:18) korrikalaria baino bi ehuneko gehiagorekin.

Espainiako aire libreko txapelketarako sailkatzeko helburua lortu du Martinek. Ea gustura itzultzen den Getafetik.



Martin Hernandez Beitia (ezkerrean), artxiboko irudi batean.


Hondartza ondoan
Urte guztian zabalik
Nafarroa Plaza • Tfnoa.: 943 192 576
20820 DEBA


Tel.: Ostolaza, 3
943 192 057
20820 DEBA


SUKIA
Fruitu eta Barazkiak
Lersundi, 13
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)

Berriketan Gartea

2017ko ekaina
Mendata BHI-ko Prentsa Tailerrean Sortua

Irungo Txingudi ikastetxearekin elkartrukea



Aurten, lehenengo aldiz, Debako Mendata Institutuak Irungo Txingudi Ikastetxearekin elkartrukea egin du, euskararen erabilera eta ikasleen arteko ezagutza bultzatzeko asmoz. Lehen hiruhilekoan, Euskal Hizkuntza eta Literatura arloko lehen ikas unitatea landu ondoren, unitate horretan burututako lanak trukatu zituzten. Gero, apirilean, ikastetxe bakoitzak hainbat jarduera antolatu zituen besteari eskaintzeko. Honela, apirilaren 6an, Irunera joan ziren Mendata Institutuko 1. DBHko ikasleak eta, apirilaren 27an, Irungoak Debara etorri ziren.

Aipatu dugun bezala, lehenik debarrak joan ziren Irunera eta bertan ikasleek antolatu zituzten ekin-tzen berri emango dizuegu:

Egunari hasiera emateko, Debakoak 10:00etan heldu ziren Irunera. Iritsi eta berehala, Txingudi Ikastetxera joan ziren. Bertan, Irungo

ikasleek egindako herriari buruzko aurkezpena ikusi zuten power point baten bidez, ikastetxeko Areto Nagusian. Gero, ikastetxearen ondoan dagoen zalditegira joan ziren. Hura ikusi ondoren, autobusa hartu eta Geoparkera joan ziren hegaziak aztertzerantz. Eguerdiko 12:00ak aldera Irungo pilotalekura joan ziren hainbat jolas egitera, hala nola zapitxu-zapitxu, lokotx bilketa eta izarraren jokoa. Eguerdiko 14:00etan San Martzial ermitara joan ziren bazkaltzera. Arratsaldeko 15:00etan Debara itzuli ziren.

Apirilaren 27an, osteguna, elkartrukearekin jarraituz, Irungo ikasleak Debara etorri ziren. 10:00ak aldera iritsi ziren Pasealeku Estalira eta Debakoekin plazan elkartu ziren. Iruindik etorritako ikasleak 135 zirenez, bi taldetan banatu ziren. Talde bat Kultur elkartearen bildu zen eta, bertan, Debako ikasleek herrian egi-

ten diren eskolaz kanpoko ekintza batzuen inguruan prestatutako power pointak ikusi zituen. Beste taldeak ibilalditxo bat egin zuen herria ezagutzeko -ibaiaren inguruan, hondartzan eta alamedan ibili ziren-.

Ekitaldi hau amaitu ostean, ikasle guztiak frontoira joan ziren eta, bertan, hamalau taldetan banaturik, zazpi taldek debarrek prestatutako jolasak (uztaien jolasa, zapitxu-zapitxu, "musu-plakaje", hiru lerroan...) egin zituzten. Gainontzeko zazpi taldeek "Deba ezagutzen" jolasa egin zuten herrian. Jokoak bukatu ondoren, eguerdiko 14:00etan, autobusak hartu eta Lasturrera joan ziren bazkaltzera. 15:00etan Irungoak bere herrira bueltatu ziren eta, ordu erdi geroago, Mendata Institutukoak Debara.

Irakasleei eta ikasleei oso esperientzia polita iruditu zitzaizkien eta dotarren ikasturtean beriz elkartzeko planak egin zituzten.



Esperientzia gomendagarria

“Lagun berri asko egin genituen, oso atseginak dira”

Apirilean, Mendatako 1. mailakoek elkartrukea egin zuten Irungo Txingudi ikastetxeko kideekin eta esperientzia prestatzeko antolaketa lanetan ibili ziren ikasleei egin diegu guk hilabete honetako elkarrizketa. Irati Beristain, June Sudupe, Beñat Iriondo, Markel Beristain, Leire Sagarna eta Garazi Garridorekin aritu gara hizketan.

Zenbat ikasle bildu zineten?

Berrehun bat ikasle bildu ginen, gutxi gora-behera.

Power pointa prestatu zenuten, zertarako?

Bai, Irungo ikasleei Deban zer ikusiko zuten jakinarazteko prestatu genuen eta, horrela, herria nolakoa den ezagutzeko aukera izan zuten bisitariek.

Deban zer ikusi zenuten? Eta Irunen? Zer egin zenuten toki bakoitzean?

Deban, herri guztia ikusi genuen, horretarako “Deba ezagutzen” jolasa antolatu baike-nuen. Horrela, herriko tokirik esanguratsu eta erakargarrienak ezagutu zituzten. Irunen, Txingudi ikastola, Geoparkea eta San Martzial ermita ezagutu genituen.

Deban hainbat jolas antolatu zenituzten. Zer

nolako jolasak ziren?

Zapitxu-zapitxu, musu-plakaje, hiru lerroan eta uztailen jokoak antolatu genituen, irakasleen laguntzarekin.

Gustura ibili zineten?

Bai, oso gustura ibili ginen. Irungo ikasleak, nahiz eta asko izan, oso jatorrak dira.

Lagun berriak egiteko aukera izan zenuten?

Bai, noski. Lagun berri asko egin genituen, oso atseginak dira.

Zein irakaslerekin joan zineten?

Ibon Arriola, Tomas Ramos eta Jokin Lasarekin joan ginen.

Zer iruditu zaizue esperientzia hau?

Oso ondo egon da eta hurrengo kurtsokoei elkartrukea egitea gomendatuko genieke.

Inkesta

Ikasleak protagonista; zelan baloratzen duzue egitasmoa?

Maiatzeko ale honetan 1. mailako ikasleei apirillean Irungo Txingudi ikastetxekoekin egindako elkartrukeari buruzko inkesta egin diegu:

- 1.- Zer moduz pasa zenuten?
- 2.- Gustura egon zinenen?
- 3.- Jende asko ezagutu zenuten?
- 4.- Zer egin zenuten Deban?
- 5.- Gauza berriak ikasi zenituzten?
- 6.- Irunen zer egin zenuten?
- 7.- Zein da gehien gustatu zitzaizuen ekintza?
- 8.- Errepublikatuko zenukete esperientzia?

Othane Izquierdo



- 1.- Ondo pasa genuen.
- 2.- Bai, oso gustura.
- 3.- Bai, dezente.
- 4.- Jolasak, jendea ezagutu...
- 5.- Bai.
- 6.- Jolasak, power pointak ikusi eta Irun ezagutu.
- 7.- Jolasak, muxu-plakajea.
- 8.- Bai, noski.

Maren Lobete



- 1.- Oso ondo.
- 2.- Bai.
- 3.- Bai, asko.
- 4.- Jolasak, altxorren bila egin genuen eta Lasturrera joan ginen.
- 5.- Bai.
- 6.- Jende asko ezagutu genuen.
- 7.- Altxorren bila.
- 8.- Bai.

Denbora-Pasak


Hizki-zopa

HIZKI ZOPA HONETAN UDAN EGIN DAITEZKEEN HAINBAT JARDUERA BILATU BEHAR DITUZUE

S	T	M	G	G	O	U	T	R	I	A	T	L	O	I	A
M	B	U	S	U	B	M	A	R	I	N	I	S	M	O	A
E	E	A	Z	G	F	J	O	S	M	P	F	L	M	B	O
R	U	T	A	Z	T	H	A	R	A	C	I	M	I	F	
P	M	S	A	A	A	Z	T	R	A	D	N	O	H	A	C
N	T	T	J	E	B	O	L	E	I	B	O	L	A	N	K
T	J	D	M	M	U	G	M	K	O	Z	S	N	T	I	P
E	O	T	A	X	J	U	I	G	E	R	I	K	E	T	A
M	F	S	T	H	O	T	N	K	M	A	P	M	P	S	E
U	K	F	E	J	A	A	D	P	G	E	B	L	U	I	G
Z	N	A	R	N	S	E	S	T	K	K	L	Z	F	P	T
E	D	K	P	A	I	F	U	V	J	A	Z	Y	G	X	U
P	M	G	O	N	N	R	R	D	B	B	S	L	T	A	N
M	J	U	L	L	E	U	F	T	Z	I	V	F	N	O	O
N	I	T	O	A	T	S	N	U	D	D	F	P	T	F	S
O	O	A	A	C	T	I	X	N	Y	A	R	Y	U	M	L
H	S	E	I	Z	A	S	M	S	P	I	Z	K	R	K	R
G	O	Z	G	F	V	R	G	V	A	K	R	V	N	E	
C	C	U	D	M	C	L	S	A	T	T	L	H	M	V	
N	M	B	E	N	X	G	R	A	M	U	U	G	N	S	L
M	O	I	J	E	A	P	N	A	B	I	G	A	T	U	X

ARRANTZATU
BIDIATU
BOLEIBOLA
BUZEATU
HONDARTEA
IGERIKETA
NABIGATU
PAINTBALL
PISTINA
SUBMARINISMOA
SURFEATU
TENISA
TRIATLOIA
WATERPOLOA
WINDSURF

Aurkitu bidea



laguntzaileak:



babesleak:



Debako Udala

Gorka Arrizabalaga



- 1.- Ondo pasa nuen.
- 2.- Bai.
- 3.- Bai, asko.
- 4.- Jolasak egin genituen.
- 5.- Bai.
- 6.- Jolasak egin genituen eta power pointak ikusi genituen.
- 7.- Altxorraren bila.
- 8.- Bai.

Danel Formariz



- 1.- Ondo.
- 2.- Gutxi gorabehera bai.
- 3.- Bai.
- 4.- Jolasak.
- 5.- Ez.
- 6.- Jolastu.
- 7.- Altxorraren bila.
- 8.- Bai.

Nahia Perez




- 1.- Besterik gabe.
- 2.- Besterik gabe.
- 3.- Ez.
- 4.- Jolasak.
- 5.- Ez.
- 6.- Jolasak eta power pointak.
- 7.- Altxorraren bila.
- 8.- Ez.

Beatriz Osa




- 1.- Ondo.
- 2.- Bai.
- 3.- Bai.
- 4.- Paseatu eta jolastu.
- 5.- Ez.
- 6.- Paseatu eta jolastu.
- 7.- Frontoiko jolasak.
- 8.- Bai, noski.

Ezetz asmatu!



Margotu ezazu ostadarraren koloreekin



Prentsa tailerra 2016-2017

Urko Azkoitia, Maria Perez, Maite Ramos, Nerea Sanz, Intza Sudupe, Eneko Arriola, Jone Gomez, Janire Lopetegi, Eider Perez, Iruñe Ruiz, Maider Almortza, Ibai Bernal

Koordinatzailea: Tomas Ramos

AGENDA

EKAINAK 23, OSTIRALA

-22:00. **San Juan Bezpera**. Urtero bezala, sua piztuko da Deban, Itziarren eta Lasturren.

EKAINAK 24, LARUNBATA

-11:00. **San Juan eguna**, Santa Katalinan.

-X. **Debako Itxasmila** (Mutriku-Deba zeharkaldia). Izen-ematea: www.sailkapenak.com.

-15:00. **Akelarrea Urritzun**. Arratsik luzeena eta gaurik motzena lagun artean igarotzeko. Irteera Itziarko plazatik.

EKAINAK 28, ASTEAZKENA

-22:00. **San Pedro bezpera**. Zahagi erretzea plaza zaharrean.

EKAINAK 30, OSTIRALA

-19:30. **Azken ostirala**. Euskal preso eta iheslari politikoen eskubideen aldeko elkarretaratzea, Foruen plazan.

-22:00. **Antzerkia: "Lapurminak"**, plaza zaharrean (Iturri ondoan).

-22:00. **Kontzertua: Anari**, Itziarko Burugorri aretoan. Sarrera: 5 euro.

UZTAILAK 1, LARUNBATA

-11:00. **Bisita gidatua**: Santa Maria eliza. "Gipuzkoako Eraikuntza Pargabeak" lehiaketako irabazlea. Alex Turrillas arituko da gidari lanetan.

Udako kirol kanpaina

Udaleko Kirol Sailak udako kirol kanpaina zabaldu berri du: piraguisimo, surf, bodyboard, xakea... Izena emateko eta informazio gehiagorako, jo www.deba.eus atarira edo Turismo Bulegora.

UZTAILAK 4, ASTEARTEA

-19:00. **Puski eta Txurruski pailazoan "Klowmunicatu Fest" ikuskizuna haurrentzat**, zumardian. Zuhatza elkarteak antolatuta.

UZTAILAK 7, OSTIRALA

-22:00. **Musika emanaldia: Lagun Artean**, plaza zaharrean (Iturri ondoan).

UZTAILAK 9, IGANDEA

-8:30. **Ibilaldia itsaslabarretik** (Elorrixako haizetatik Sakonetara). Irteera Itziarko plazatik.

UZTAILAK 11, ASTEARTEA

-19:00. **"Txapela buruan eta dantza munduan" ikuskizuna haurrentzat** (Eidabe Kultur Ekimena), zumardian. Zuhatza elkarteak antolatuta.

UZTAILAK 14, OSTIRALA

-22:00. **Begiradak 2017**. Herriko sortzaileen irudiak eta hitzak izango dira protagonista ekitaldi honetan. Plaza zaharrean (Iturri ondoan).

UZTAILAK 21, OSTIRALA

-22:00. **Bertso saio musikatua: "Ez da kasualitatea"**, plaza zaharrean (Iturri ondoan).

UZTAILAK 22, LARUNBATA

-12:30. **Kontzertua: Debako Musika Banda**, Itziarko santutegiaren atzeko aldean.

XII. Tene Mujika Beka

Tene Mujika bekarako oinarriak argitaratu berri ditu Debako Udalak. Elkar argitaletxearen laguntzarekin egin du deialdia, Euskal Herriko historia hurbilaren ezagutza zabaldu eta gure literatura aberasteko helburuarekin. Proiektuak 2017ko abenduaren 11 baino lehen artxiboa@deba.eus helbidera bidali beharko dira. Informazio gehiagorako: www.deba.eus.

Kartel lehiaketak

-Zuhatza Euskara Elkarteak abian du irailean ospatuko dugun aro berriko XX. **Euskal Jairako kartel lehiaketa**. Lanak aurkezteko epea uztailaren 13an, osteguna, eguerdiko 13:00etan, amaituko da. Informazio gehiagorako jo aldizkari honen 3. orrialdera.

-**San Rokeak 2017**: Jai Batzordeak herriko jaietarako kartel lehiaketa antolatu du. "Abuztuak 14-18. 2017ko San Roke jaiak. Deba" izenburua eraman beharko dute lanek. Uztailaren 15etik 20ra bitartekoa izango da lanak aurkezteko epea. Informazio gehiagorako: www.deba.eus.

Udako ordutegia udal liburutegian

-Ekainaren 26tik aurrera, Ostolaza Udal Liburutegiak udako ordutegia izango du. *Liburutegi orokorra: astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara izango da zabalik. Haur/gazte liburutegia, berriz, 10:00etatik 13:00ak arte.



Uzuri
optika audio
www.uzurioptika.com

**ZURE ENTZUMENA
ZAINTZEN**



Ostolaza, 7
20820 DEBA
Tel: 943192192

RPS: 183/12

ZAINTZAKO BOTIKA

Egunez, 09:00etatik 22:00etara

Zalduegi: **ekainak 23, 24, 25.**
uztailak 3, 4, 5, 6, 21, 22, 23.

Burgoa Zuazo:
uztailak 7, 8, 9, 17, 18, 19, 20.

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Toribio Etxebarria, 4 (943 20 23 44)

DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI: 669 262 201

BURGUA ZUAZO: 667 338 890

Larunbat goizetan beti bat irekita:

ZALDUEGI: ekainak 24 / uztailak 1 eta 22

BURGUA ZUAZO: uztailak 8 eta 15

9:30 - 13:00



Argazkilaria
Ander Salegi

(argazki erreportaiak, photoshop-eko erretokeak...)

Email: andersalegi@gmail.com

Tlf: 685 703 843



English Academy
NORTH STREET ENGLISH

Telf. 675 714 031 - Ifar kale, 15 - Deba
rhorton4@yahoo.es

Mikel

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206
Tel./faxa: 943 191 774
Hondartza, 10 - behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
mikeliturgintza@euskalnet.net
www.mikeliturgintza.com

A D

ASESORIA DEBA C.B.

JURIDIKOA - LABORALA - FISKALA - ASEGURU KONTABLEA - HIGIEZINAK

Miren Lore: 669 895 617
Eduarne: 669 895 619

asesoriadeba@asesoriadeba.com
www.asesoriadeba.com

HONDARTZA, 2 - BEHEA Tel.: 943 192 127
20820 DEBA (GIPUZKOA) Fax: 943 192 482

atari

etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIKURAK, ABOKATUA
Lersundi 1, behea 20820 - DEBA
Tel.: 943192263
www.atarideba.com

Lizaso
Autozerbitzua


Lersundi kalea, 21
Tlfnoa: 943 19 27 29



Jarri zure publizitatea
Berriketan aldizkarian!

Zuhatzia

943 191 383
berriketan@zuhatzia.com

**URDAITEGIA
AITTOLA
HARATEGIA**

Astillero, 3
Tlfnoa.: 943 191 776
20820 DEBA


GENOVEVA
Arraindegia

Ostolaza Kalea 25.
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Telf.: 943 191 818




MAXI BAR

Lersundi, 28
Tel.: 943 191 206
Deba (Gipuzkoa)



ZALBURDI

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

LENTZERIA

Azoka

MERTZERIA

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA




Bar LOREA

“Orotariko tartak etxean eginak”

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095

Deban
Kolorez Blai
Udalekuak



Gurasoentzat bilera:

Ekainak 30, ostirala 19:00etan
Udaletxeko areto nagusian

Informazio gehiagorako:
koloreanitz@gmail.com - 645 65 92 75



UDARA KULTURAZ BLAI

Kulturaz Blai, euskaraz blai, haur eta gazte hurbildu alai!



"Klowmunikatu Fest!"

(Puski eta Txurruksi pailazoak)
UZTAILAK 4, ASTEARTEA



"Txapela buruan eta dantza munduan"

Eidabe ekimen kulturalak
UZTAILAK 11, ASTEARTEA

**Ikuskizunak zumardian egingo dira, 19:00etan. Euria egingo balu, Luzaroko pilotaleku txikian.